


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak enpresa bati bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru sarrerak sortzea ahalbidetzen dioten elementuak dira. Hauek hainbat motatakoak izan daitezke, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Aplikatzeko erei dagokionez, bi motatakoak izan daitezke: externalizazioa eta kostuak murriztea. Hauek zer diren kontuan hartuta guk hurrengoak erabiliko ditugu gure enpresa martxan jartzeko.

Baliabide fisikoei dagokienez, bi taldetan sailkatu ditzazkegula pentsatzen dugu. Alde batetik, gure ondasuna ekoizteko beharrezko lehengaiak edota natura baliabideak, hau da hornikuntza baliabideak: banbua, laserra eta diseinu pertsonalizatua egiteko materiala, horien artean, irudi desberdinetako zigiluak erabiliko ditugu. Hemen barnean ere, AENOR enpresa sartu dezakegu, hau da, kalitatezko testak egiteko kontratatu dugun enpresa, gure enpresa ahal bezain onena ateratzeko. Bestetik, beste baliabide fisiko batzuk dira bezeroak gure produktuak eskuratzeko edukiko dituzten guneak edota denda fisikoak, bertan hainbat aukera ditugu: mugikorra, ordenagailua eta tokian tokiko denda fisikoak, supermerkatuak edota estankoak adibidez. Hala, aurreko dokumentuan edo atalean aipatutako bezeroenganako harreman pertsonalagoa bermatuz.

Giza baliabideei dagokienean, gu enpresari akziodunak gara. Hau da, gu , baliabide intelektuala izango gara, inbertsioaz arduratuz; Gu ideiaren sorreraz, hobekuntzez eta administrazioaz arduratuko gara. Ondorioz, gure enpresan beharrezko langileak kontratatu beharko ditugu eta bakoitza beraien funtzio edo espezializazioaren arabera sailkatuko dugu sail ezberdinetan.

Hau da gure enpresaren organigrama:



Aurretik esan bezala, gure enpresaren antolaketaren eredu funtzioaren arabera izango da, hau da jakintza sailetan banatuta. Beraz, baliabide intelektualei dagokienean, gure enpresa hainbat sailetan banatuko dugu: Batzuk banbuzko xafiak prestatuko dituzte, beste batzuk metxeroa montatzeaz arduratuko dira eta azkenik beste batzuk metxeroetan diseinuak grabatuko dituzte.

Organigraman ikus daiteken bezala, jakintza-arlo ezberdinetan, Honni markako enpresari akziodunak zuzendaritza sailetan banatuta gaude. Produktioari dagokionean, Nora Garrido izango da zuzendaria, hau da, banbu lanketan, montajea eta grabatua langileak zuzenduko dituena. Merkataritza-zuzendaria, Iker Esnaola izango da. SEUR enpresarekin harremanetan jarriko dena eta kudeaketa hau aurrera eramango duen hori, banaketak ahalbidetzeko. Beste alde batetik, publizitatea dago, gure produktua ahalik eta pertsona gehienei ezagutzera eramango duen faktorea batik bat. Sail honi dagokionean, Nora Lopez izango da langileak zuzenduko dituena. Gainera, hornikuntza zuzendaria Olatz Mitxelena da, hau da, produktua ekoiztu ahal izateko beharrezkoak diren hornikuntza materialak eskuratzeko, *Banbu de Illas* eta *Electronica Selco* enprekin harremana kudeatuko du.

Finantza baliabideak ere oso garrantzitsuak dira enpresa batean, azken finean horrek ahalbidetzen digu enpresa egitera. Hau esanik, gure baliabide finantzieroetako bat hasieran eskatuko dugun mailegua da. Egia da ondoren, mailegutik jasotako dirua interesekin itzuli beharko dugula. Bestetik, irabazi-iturrietan aipatu bezala, enpresak dituen diru sarrerak ere baliabide bat

izango dira, gehienbat, *Clipper* enpresarekin egingo dugun publizitate horrek ahalbidetuko duelako enpresan ekoizteko inbertsioak egitea eta beste irabazi-iturriari dagokionean gure ondasun beraren salerosketa.

Honetaz aparte, finantza-baliabideei dagokienean, materiala erosteko, soldatak ordaintzeko, negozioa zabaltzeko eta abar egin ahal izateko behar den eskudirua lortzeko baliabideak dira. Gure enpresari dagokionean, hasieran 50.000€-ko mailegu bat behar dugu enpresaren hasiera-gastuak kudeatu ahal izateko. Ondoren, irabazi-iturrien bidez, Haizea Egizurainek, finantza-zuzendariak kudeatuko ditu baliabide hauek gastuak estaltzeko eta bestalde enpresak irabaziak edukitzeko. Kostu guztien batura egin dugunean, hilabete batean 179.700€-ko kostuak ateratzen zaizkigu. Hala eta guztiz ere, maileguarekin, saldutako metxeroekin eta *Clipper* enpresaren kolaborazioarekin ditugun irabaziak kontuan hartuta, 203.000€ lortuko ditugu hilabete batean. Ondorioz, hasiera batetik irabaziekin ateratzen gara. Gainera, etorkizunean irabaziak inbertituko ditugu ahalik eta metxero gehien ekoizteko, beraz, eskala ekonomia lortuko genuke gure kostuak jaitsiz.

Beraz, honekin guztiarekin, funtsezko baliabideei dagokienez lau talde handietan banatuko ditugu. Baliabide fisikoak, produktua ekoizteko lehengaiak eta gure produktua eskuratzeko guneak edo denda fisikoak. Gainera, giza-baliabideei dagokienean, langileak kontratatuko ditugu jakintza-esparruetan banatuz. Bestalde, baliabide intelektualak daude, hauek, jakintza sailetan banatuko ditugu produktua ahalik eta kalitate onenekoa izan dadin. Azkenik, finantza-baliabideei dagokionez hasierako mailegu bat eskatuko dugu, ondoren, irabazi-iturrien bidez, finantza-zuzendariak kudeatu ahal izateko, enpresak ahalik eta irabazi gehien eduki ahal izateko.

Azkenik, aipatu ditugun funtsezko baliabide guztiak ondo koordinatzeaz arduratuko gara, enpresak bere ekintza eta funtsezko jarduera modu egokian egitea ahalbidetzearen.